

Kutxabankek euskararekiko duen jarrera salatu du EHEk

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ herri mugimenduaren ustez, Gipuzkoa Donostia Kutxak euskaldunen hizkuntza eskubideen alorrean atzera egin du Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako kutxek bat egin dutenetik. Kutxabankeko langileen eta bezeroen kezak iritsi zaizkio EHEri.

Kexa gehienak Gipuzkoatik jaso dituzte, eta horregatik, maiatzaren 22an, Gipuzkoa Donostia Kutxako hizkuntza kudeatzailearekin bildu ziren. Egoeraren berri eman zioten EHEko hainbat kidek eta hizkuntza kudeatzaileak adierazi zien salaketa Kutxabankek Bilbon duen zuzendaritzara igortzeko konpromisoa hartuko zuela.

EHEk Kutxako ordezkariari emandako eskutitzean ondoko hizkuntza eskubide urraketak agertzen dira:

-Bezeroei arreta eskaintzeko pos-

tuetan erdaldun elebakarrak diren langileak ezarri dituzte. Orain arte, postu horietan euskaraz normaltasun osoz aritzeko aukera zegoen.

-Bezeroek euskara hautatua izanagatik, kutxazainetan gaztelania lehenetsi dute orain.

-Kutxak duela urte batzuk barne mailako sistema informatikoa euskaraz ezartzea lortu zuen. Bateria-tzearen ondoren gaztelania hutsean funtzionatzen duen sistema ipini dute.

-Hainbat bezerok Kutxarekin harremana (gutun eta jakinarazpen bidez) euskaraz zuen. Bada orain, gaztelaniaz jaso dituzte.

EHEren ustez, Gipuzkoa Donostia Kutxak euskaldunekiko harremana euskaraz izateko lorpen esanguratsuak egin ditu urte askoan, baina kutxen bateratzearekin lan guztia bertan behera geratu da.

Bahea

Iñaki Urkijo AEK-ko kideak Bizkaiko Ezkerraldeaz Berrian esanak:

“Eskola orduetan eta eskolaz kanpo-ko jardueretan, umeek euskararekin identifikatzen duten espazio bat dute. Eta behin hortik kalera irteten direnean, helduen erdarazko dinamikan sartzen dira. Horregatik, umeen eta gazteen artean euskaldun pasiboaren figura sortzen ari gara. Ere mu-formaletik kanpo erdaraz erosoago aritzen direnen figura, gehienbat, gurasoak hala ikusten dituztelako. Esango nuke ez dutela hizkuntza gatazkarik bizi, kontzienteki ez behintzat. Hori landu behar dugu. Helduok gure artean euskaraz aritzeko ahalegin handiagoa eginez, erakutsi behar diegu euren eremu ez-formaletan ere hitz egin dezaketela euskaraz”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Greba orokorra, beste urrats bat

ASTE HONETAN, MAIATZAREN 30EAN, Hego Euskal Herriko langile, pentsiodun eta herritarrek oro har, greba orokorra egitera deitu ditu sindikatuen gehien-goak, murrizketa ekonomiko eta sozialen kontra. Madrildik eta Bruselatik inposatu, eta Gasteizko nahiz Iruñeko gobernu otzanez ezarri dituzten murrizketak dira. Erantzuna bi faktorek zehaztuko dute: batetik, halako neurriekiko herritarrek duten asperraldia, batzuetan amore emateko sentsazioa (“ezin da ezer egin”, “ez dago alternatibarik”...) eta ondorioz desmobilizazioa ekar dezakeena; bestetik, ekintza sindikalerako batasun eza, sindikatu estatalistek ez baitute greba babestu.

Hala ere, hamarnaka mila lagunek egingo dute bat grebarekin, argi baitute mobilizazio iraunkor eta orokorrek baino ez dituela mugituko kapitalismoaren arduradun eta kudeatzaile politikoak. Greba orokor honek merezi izango du. Berriz ere entzungo ditugu kapitalismoaren kudeatzaileak eta bere lekaioak esa-

ten grebak ez duela ezertarako balio izan, egoera okertu baizik ez duela egiten. Esan beharra dute. Baina leherketa sozial handiago baten beldur dira, eta badakite greba hau urrats bat gehiago izango dela sistema kapitalistaren bihotza erasotzeko. Indar sozial, sindikal eta politikoak batzeko urrats bat gehiago, jendartearen kontzientziazioan beste urrats bat. Izan ere, herritarrek gero eta hobe ikusten dute egungo klase borroka, eta ohartu dira ez dela XIX. mendeko kontu bat; kapitalak langileen eta herri sektoreen kontra hasi duen borroka latza da. Bestalde, greba hau urratsa da nazio subiranotasunera bidean, eta ondorioz, euskal esparru sozio-ekonomikoa sortzeko. Kapitalismoaren eta bere kudeatzaileen aurrean belaunikatzen ez den eta hortzak erakusten dizkien euskal jendarteak, duintasunez emandako beste urrats bat izango da.

Juan Mari Arregi

